



Donostia Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua

Kultura eta aisia
euskaraz
Donostian

antzerkia

• **Zu Ere On Kixote?**
Uztailak 27, 19:30
Latsari plaza (Loiola)
Agerre Teatroa + Imuntzo Eta Beloki Trikitilariak
Herritarren partaidetzako eta eragin-trukeko antzerki esperientzia

bertsoa

• **Berto bazkaria**
Uztailak 28, igandea, 14:00
Loiolako festetan
Lustri Colina, Behat Gaztelumendi

musika

• **Berri Txarrak, Betagarri, ...**
Uztailak 30, 00:00
Zubietako plaza
Zubietako herri jaiak

beste

• **SERT-en Anatomia**
Uztailak 27, 18:00
San Telmo Museoa
Bisita Gidatua, 3€
izena emateko: 943-481569
santelmo@donostia.org

• **SERT-en Anatomia**
Uztailak 30, 18:00
San Telmo Museoa
Bisita Gidatua, 3€
izena emateko: 943-481569
santelmo@donostia.org

haur antzerkia

• **Gazurtiak**
Uztailak 30, 18:00
Trapu Zaharra
Antzerkia kalean
Easo plaza
Adina: +4

haur aisialdia

• **"Eureka" Zientzia Museoa**
Uztailak 27, larunbata
Segway, 11:30, 15:00
Buzur behera ibiltzen zekien neska, 12:00
Elementuen magia, 13:15
Fakirren ohea, 17:30
Ohe elastikoa, 16:45
Sumendiak, 16:45
MATEmagia, 16:45
Urezko suzuria, 17:45
Eboluzioa, 18:00

• **Gaztetxoan antzerkia**
Uztailak 28, 12:00
Zubietako plaza
Zubietako herri jaiak

• **"Eureka" Zientzia Museoa**
Uztailak 28, igandea
Segway, 11:30, 15:00
Buzur behera ibiltzen zekien neska, 12:00
Fakirren ohea, 17:30
Ohe elastikoa, 12:15, 16:45
Sumendiak, 15:45
Urezko suzuria, 13:00
Biziazen jatorria, 18:00
Elektrizitate ikuskizuna, 18:45

• **Otsos otso**
Uztailak 29, 18:00
Urgulleko haur liburategia
Damen Bateria. Adina: +5

• **Birziklatutako txotxongiloak**
Uztailak 30, 18:00
Urgulleko Natur txokoa
Gobernadorearen bateria
Adina: +5

• **Txio-txioka**
Uztailak 31, 18:00
Urgulleko Natur txokoa
Gobernadorearen bateria. Adina: +5

Pirinioetatik Bardeetarako txokoak ikusi ahal izango dira Ekain galerian

Paisaietako txokoak margotu ditu Javier Valverdek. Abuztuaren 31ra arte egongo dira Donostiako aretoan

Manex Munduate Donostia

Zelulosa eta kartoizko oinarrian margotutako pastelak, olio zingudako margolanak eta kaxak nahiz bestelako objektuak ere izango dira ikusgai Donostiako Ekain aretoan. Guztira, Javier Valverde margolariaren 32 lan erakutsiko dituzte abuztuaren 31ra arte.

Azken bi urteotan landutako lanak daude erakusgai. «Lehen, paisaiak bere osotasunean lantzen nituen; orain, berriz, horien txokoetan, ñabarduretan jarri dut begia», azaldu zuen Valverdek. Ez du, ordea, aldaketa horrentzako arrazoi garbirik. Argazkietan oinarritzen da margotzeko, baina ez ditu bereziki bilatzen. «Batzuk bai, baina beste batzuk oharkabean ateratzen ditut. Gertatu izan zait harri bat margotu eta gerora nonbait topatzea ere», adierazi du.

Margotzean jarraitzen duen prozesua ez da sistematikoa. Haren arabera, lan bakoitza modu ezberdinean hasten du. Margolan handiak ditu gustuko, baina lan gehien ematen diotenak ere badira.

Edorta Kortadi arte kritikoko erreialismo magikoan kokatzen du Valverderen lana, erreialismoaren eta surrealismoaren tartean, nolabait esateko. Inguratzen duen mundua jaso, eta bere bahe-tik igaro otean ametsezko ukituak ezartzen dizkio, kritikorearen esanetan.

Valverderen iloba Isabel Guesen esanetan, koloreen arteko



Javier Valverde, Ekain aretoan ikusgai dauden zenbait lan atzean dituela. GORKA RUBIO / ARGAZKIPRESS

kontrastea eta kolore bizien erabilera da margolariaren lanen ezaugarrietako bat. «Gainera, nabarmentzekoak dira plano aldaketak haren margolanetan». Izan ere, zenbait pasteletan planoen banaketa margoaren bidez ez ezik, fisikoki ere egiten du, oinarri ezberdinak erabiliz. Lan guztiaren ostertza agertzeak ere zerikusia izan dezake plano banaketarekin. «Zuhaitzen presentzia ere deigarria da; beharbada, egonkortasunaren adierazgarri dira», Guesen iritziz.

Bilakaera nabarmena

Erakusketan argi ikus daiteke zein eratan aldatu den Valverderen lana: bai margotzen dituen paisaiei dagokienez, bai erabiltzen dituen teknikan eta baita pintura estiloari erreparatuz gero ere.

Irudikatzen dituen paisaietan, azken bolada honetan, bai atkeratzen dituen inguruak eta baita margoan islatzen duen ikuspuntua ere aldatuz joan dira. «Lehen Pirinioen gisako paisaia berdeak margotzen nituen; orain, berriz, Bardeen moduko ingurune lehorragoetarako joera piztu zait», jakinarazi du artistak. Hala ere, nabarmendu du Pirinioak, Artikutza eta Aralar inguruak ere oso gustuko dituela. Era berean, lehen paisaia osoak margotzen zituen, eta, orain, txoko zehatzetako xehetasunak (belarrak, orbelak...) irudikatzen ditu.

Baliatzen dituen teknikan ere aldaketa nabari da. Lehen, oihal gainean olio zingudatu zuten, eta orain, berriz, geroz eta maizago zelulosa eta kartoizko oinarrian aritzen da pasteekin. «Zelulosan eta olio zingudatu ber-

harrean, azkarragoa, arinagoa eta merkeagoa da pastelak erabiltzeko. Hala ere, oihalean olioak denbora gehiago eskatzen badu ere, dudarik gabe bere xar-ma du. Oihala, oihala da», ziurtatu du Valverdek. Aldaketa, baina, ez da bat-batekoa izan, eta horrek badu haren obran isla, tartean bi teknika horiek batera erabiltzeko osatutako lanak baitaude.

Margotzeko teknikan izandako bilakaerak ere, bestalde, eragin dute haren lanen estiloan. Haren ilobaren aburuz, erreialismo magiko deritzonetik abstrakziozkoak erabiltzen ditu, gaineratu du. Pastelak zelulosan sortzen duen efektua eta olioak oihalean sortzen duena guztiz ezberdinak dira. Olioak oihalean lauaren irudikapena sorrarazten du, ez hala zelulosazko oinarrian pastelak.

Bernadette Lafont aktore frantziarra hil da

‘Nouvelle Vague’ mugimenduaren ikonoetako bat izan zen, eta Truffaut eta Chabrolekin aritu zen

Erredakzioa Donostia

Bernadette Lafont aktore frantziarra ostegunean hil zen Nimesen (Frantzia), 74 urterekin. Lafont aktore oso estimatua zen, eta

bere herrialdeko zinemagile ospetsuenekin lan egin zuen, batik bat, Nouvelle Vague mugimenduaren magalean 60ko hamarkadaren hasieran nabarmendu zirenekin.

Claude Chabrolen agindueta-
ra, *La Beau Serge*, *Les Femmes d'Ala*, *Les Femmes de l'Ala* eta *Les Godelureaux* egin zituen, besteak beste, baina lan egin zuen, era berean, Truffautekin (*Une belle fille comme moi*), Louis Mallerekin (*Le Voleur*) eta Jacques Rivettarekin (*Out 1: Spectre*)

Zinemaldian, ‘Amaren eskuak’ estreinatuko da

Mireia Gabilondo zinemagileak zuzendu du Karmele Jaioren izen bereko eleberrian oinarritutako filma

Erredakzioa Donostia

Mireia Gabilondok zuzendu duen Karmele Jaioren *Amaren eskuak* eleberrian oinarritutako filma estreinatuko dute Zinemaldian,

Barton Films zinema banatzaileak jakinarazi duenez. Zinemaldiak, baina, oraindik ez ditu zehaztu estreinaldiaren xehetasunak.

Pelikula iaz filmatu zuten euskara hutsean, eta, batez ere, Gasteizen kokatzen da. Lana eta familia bizitza uztartu ezinik dabilen 37 urteko kazetariaren istorioa kontatzen du. Bere ama gaitozteak haren harremana eta bizitza bera beste era batera ikustera eramango du.